



• **DOSIERRA**

Kirol Zelaiaren proiektua:
bizi gune berria

• **GAZTERIA**

Marguerite Schwab
ikastetxe publikoa

• **ELKARTE-BIZITZA**

Arbonako besta batzordea:
Arbonako adinekoendako
une partekatuak



2025eko uztaila

EDITORIALA 3

HERRIAREN BIZIA 4 - 5

Sortuberrien Lorategia,
Léa Charenton : nazioarteko triatloilaria,
Zerbitzu teknikoak lanean hartzeko prest, Erretreta merezia

GAZTERIA 6-7

Marguerite Schwab ikastetxe publikoa, Arbonako geroaren bihotzean kokaturiko eraikina,
Jantegi berria, Eskolako berriak, Frida Kahlo haurtzaindegia

DOSIERRA 8 - 9

Kirol Zelaiaren proiektua: bizi gune berria

HIRIGINTZA 10

GEUZA 11

Beregaintasunaren etxea, Apairuak ekartzeko zerbitzua

HURBILTASUNA 11

Errepide bazterreko berdeguneak artatzeari buruzko araudia: aldatzen dena

ELKARTE-BIZITZA 12 - 13

Airoski, Arbonako besta batzordea,
Hegoak Mendian elkarte, Arbonarrak

KULTURA EGITARUA 14

Udako egitaraua

ELKARBIZITZA / OPOSIZIOAREN IRITZI ZUTABEA 15

Heskaiak artatzea

2025. URTEARI BEGIRA 16



IDEKITZEKO ORENAK

Arbonako herriko etxea

10 route du Bourg
64210 Arbonne
Tél. 05 59 41 94 66
www.arbonne.fr
mairie@arbonne.fr

Irekitzeko ordutegia

Astelehena 9h - 12h
Asteartea 14h30 - 18h
Asteazkena 9h - 16h
Osteguna 14h30 - 18h
Ostirala 9h - 12h

Argitalpen-zuzendaria

Marie-José Mialocq

Erredakzio Batzordea

Komunikazio batzordea

Argazki kredituak

Herriko Etxea - Herriko elkarteak

Azala

Delphine Elhorga

Inprimaketa eta diseinua

Antza Komunikazio Grafikoa

Harremanetarako

communication@arbonne.fr



Arbonar agurgarriak,

Udaberrian, ohiz kanpoko gertakari batek markatu du gure hiriko bizitza: **Marguerite Schwab ikastetxe publikoaren estreinaldia**. Talde-engaia mendu baten ikurra den une nagusi horren ondotik, ate irekiak arrakastatsuak izan dira. Saldoan etorri zarete ikastetxe berri horren ezagutzera, orain gure haurren egunerokotasunean erroak egin dituelarik.

Urte bukaeran irekiko duen jantegiaren eraikuntzak proiektua osatuko du. Toki bakar batean eskolaldi eta eskolaldi inguruko jarduera guziak biltzeko bidea eskainiko du, besteak beste bazkalorduan. Gure gazteen erosotasunerako, ongizaterako eta loratzerako urrats handia da, haientzat pentsatua izan den ingurumen moderno eta erabilgarri batean.

Beste hedadura handiko proiektu batzuk ere gauzatzen ari dira.

- Gaurdanik, **kirol zelaia** gauzatua izateko bidean da. Aisialdiei eta kirolei eskainiriko etorkizuneko gune hori, Ahalmen Urriko Heldu eta Gazteen Elkarteak sustaturik, adin guzientzat pentsatua izan da. Gure bizi ingurumena aberastuko du eta topaketa eta partekatze guneak azkartuko ditu.
- **Lehiaz igurikatua den farmaziaren leku aldaketa** ere gauzatzen ari da 2025eko erroldaren emaitzei esker, 2 500 biztanle baino gehiago zenbatuak izan direlarik. Urrats handia artatua izateko bidean gure lurraldean.

Eta orain, udaz gozatzera!

“**Uda Arbonan**” ekitaldiaren edizio berria proposatzen dizuegu atsegin handiz, besta giroko egitarau aberatsarekin, guztiz urririk, pilota plazan: **rock kontzertuak, salsa gaualdiak eta, nola ez, euskal pastelaren besta famatua agorrilean**.

Gure herriko besta tradizionalak, besta batzordeak antolaturik agorril hastapenean, urtaro ederra alaituko dute, belaunaldi guziak elkartuz giro goxoko uneak kari.

Ekitaldi horiek egingarri egiten dituzten langile, boluntario eta elkarte guziak eskertu nahi ditut bihotz-bihotzez. Une partekatu horiek dute gure herriaren bihotza suspertzen.

Haatik, erne egon gaitezen: bero handiek zaugarrienak ahuldu ditzakete. Gure hurbilekoei, gure auzokideei erne egon gaitezen - jestu soil batek egoera arrunt alda dezake.

Denei, uda eder bat opa dizuet eta etorkizuneko ekitaldietan zuekin topatzeko lehiaz nago!

Marie José Mialocq

Auzapeza

HERRIAREN BIZIA

ONGI ETORRI ARBONAR BERRIEI

Gure herrian errezibitzen zaituztegu atsegin handiz. Herria hobeki ezagutzeko eta berrien jakinean egoteko, zenbait aukera eskainiak zaizkizue:

- Gure webgunea bisitatu: www.arbonne.fr
 - Berripapera jasotzeko harpidedun egin
 - Zure burua aurkeztu.
- Berripapera jasotzeko: communication@arbonne.fr

ARBONAKO SORTUBERRIEN LORATEGIA: IZADIA ETA OROIMENAREN ARTEKO LEKU SINBOLIKOA

Herriaren erdian, Arbonako Sortuberrien Lorategia herritarra eta poetikoa den eremu bat da, herriko sortuberrien etorrerari eskainia. Berdegune xoko honek belaunaldien arteko lotura sakona, izadia eta herriak gazteriaren alde daraman engaiamendua irudikatzen ditu.

Urtero, herriak zuhaitz bat landatzen du aitzineko urtean sorturiko haurren omenez. Haien izenak daramatzan plaka bat jarria da zuhaizpean. Familiak lagun arteko zeremonia goxo batera gomiatuak dira.

Oroimena pizteko lorategia

Lorategi bat hautatzea munduratzek ospatzeko, ez da funsgabea: zorion une horiek urraspide iraunkor batean sarraraztea da. Proiektua 2010ean sortu zen Françoise Gree hautetsi engaiatu zenaren ekimeenez, zoritxarrez gazteegi joan zaiguna. Hari esker, leku hori bizia, transmisioa eta izadiaren errespetuaren sinboloa bilakatu da.

Zuhaitzak bertan landatzen segitzeak bioaniztasuna sustatzean parte hartzen du eta haurrak eta helduak ingurumenaren babesteko garrantziari sentsibilizatzen ditu. Denei helgarri, lorategi hori beha egoteko, gogoetatzeko edo, soilik, lasai une batez gozatzeko gomita bat da, txorien kantuak eta zuhaitzen itzal babesgarriak goxaturik.

Familiei bertan ibiltzea gustatzen zaie, haurrei "haien" zuhaitza erakusteko. Zuhaitzak eta haurrak aldi berean hazten ikusteko bide hunkigarri eta paregabea da, lotura bizia sortuz haurren eta herriaren artean.

Urteak joan ahala, lorategia landare-oroimen bilakatzen da, hala paisaian nola biztanleen bihotzean gutziz erroturik.

NAZIOARTEKO TRIATLOILARIA

23 urte baizik ez dituen Léa Charenton etorkizun handiko kirolaria jadanik nagusitzen ari da triatloiar munduan. Joan den maiatzean, Lanzaroteko Ironman proba lorioski bukatu du, munduko zailenatariko bat omen delarik. Hirugarren amaitu du bere kategorian (18-24 urtekoak) eta hirugarren frantsesa izan da kategoria guziak nahasirik.

Eta Léa ez da horretan geldituko! Deliberatua eta ausarta denez, Léa partaide bila dabil gaur egun, kirol abentura zorrotz horretan aitzina joaten laguntzeko. Harekin harremanetan jartzeko:

charenton.lea@gmail.com



LOREZTATZEA ETA ARTATZEA: ZERBITZU TEKNIKOAK LANEAN HARTZEKO PREST

Urtaro guzietan bezala, zerbitzu teknikoko langileak Arbona edertzeko eta eremu publikoak artatzeko lanean ari dira: garbiketa, konponketa ttipiak, errepideen konpontzea, herriko eraikinen artatzea, heskaiekin moztea, bideen artatzea... Beren lana ez bada ikusten ere, egunerokotasunean begipean dugu.



Herriaren loreztatzea beren ekintzen puntu azkarretariko bat da, lore multzo koloretsuen landatzea eta lore asken artatzearekin. Arta berezia eskaintzen dute herria garbi, polit eta goxoa egon dadin, hertsadura ekologikoei, ekaitz eta idorte garaiei jarraikiz.

Bide bazterreko sasiak garbitzeko tresna berria, artatze lan eraginkorragorako

Autonomia eta eraginkortasun gehiagorako, herriak bide bazterreko sasiak garbitzeko tresna berri bat erosi berri du. Tresnak bide bazterreko belarra eta sasiak mozteko eta arroilak artatzeko bidea eskaintzen du. Ekipamendu berri honek langileen lana errazten du eta esku hartzeak planifikatzeko bidea ematen du tokiko beharren arabera, kanpoko esku hartzeen meneko egon behar izan gabe.



ONGI ETORRI ZERBITZU TEKNIKOETARA

April hastapenetik, Benoît Espallier herriko zerbitzu teknikoko langileekin lanean hasi da. Eremu publikoen berdetzean luzaz aritu ondotik, Arbonako ibilera onerako funtsezkoa den lantaldea azkartzera etorri da. Beregaina, gaitasun handikoa eta beti laguntzeko prest, Benoît berehala egokitu da.

Gure bizi ingurumenerako balio handiko lantaldea

Langile teknikoaren engaiamenduari esker, Arbona herri garbia, artatua eta loretsua egoten da. Beren lanak denen bizi kalitatean parte hartzen du egunero.

ESKERRIK BEROENAK, ERRETRETA ONGI MEREZIA!

Arbonako ikastetxean 27 urte iragan ondotik, Marie-Hélène Urvoy anderea bere lanbide bizitzaren tarte eder bat bururatzeko puntuan da.

Hasi zenetik ttipi-ttipien ondoan aritu da lanean. Zenbait haur belaunaldi lagundu ditu suharki eta arduratasun handiz, ama eskolako lehen urtetik lehen mailako irakurketa eta matematikako lehen irakaspenetara. Berriki, lehen mailako lehen urtekoak sarrarazi zituen bere ikasgelan, maila anitzeko erronka lorioski altxatuz.

Marie-Hélène Urvoy andereñoak zorrozatasuna, onginahia bateratzen jakin du beti, ikasgelako giroa umore izpi berezi batez onduduz. Bere profesionaltasunak, ikastetxeko lokalen eta ibilkeraren aldaketetara egokitzeko gaitasunak baita ikastetxeko talde-bizitzan erakutsi duen engaiamendu jarraikiak markatu dituzte hala lankideak nola ikasleak.

Pedagogia taldearentzat balio handiko langile inspiragarria izan da, egiazko habe fidagarria.

Arbonako haurren ondoan hainbat urte eskaini ondotik, zorionez, egitasmoz eta bozkarioz josiriko erretreta merezia opa diogu.

Arbonako haurren ondoan hainbat urte eskaini ondotik, zorionez, egitasmoz eta bozkarioz josiriko erretreta merezia opa diogu.

Egin duzun guziagatik, milesker Marie-Hélène!





Ezkerretik eskuinera: Allegrotti 1. axuant jna, Laur Ivandekics arkitekto jna, Macazaga eskolako zuzendari and., Luberriaga departamendu kontseilari and., Mialocq auzapez and., Rosay Suprefet jna, Lecat Baiona/Miarritzeko kontsistorioko lehendakari jna, Wajnberg akademiako zuzendariorde jna, Cuculou Akademiako ikuskatzaile and., Peigneguy 2. axuant and.

MARGUERITE SCHWAB IKASTETXE PUBLIKOA: ARBONAKO GEROARI BURUZ ITZULIA DEN ERAIKINA

Estreinaldia - 2025eko maiatzaren 7a

2025eko maiatzaren 7a Arbonako historiako egun nagusi gisa betikotuko da, Marguerite Schwab ikastetxe publikoa estreinatua izan den eguna, zenbait pertsonalitate hurbildu direlarik, hala nola suprefeta.

Hitza hartu duelarik, andere auzapezak "herriarentzat historikoa" eta "auzapez baten bizian urria" den proiektua estreinatzeko harrotasun handia adierazi du. "Kalitate handiko" lana goretsi du, Arbonako bizkortasunaren eta hezkuntzaren aldeko talde-engaiamendu azkarraren seinale, haurren arrakastaren zerbitzuko.

Hitz hartzeen ondotik, Marguerite Schwab anderearen erduzko ibilbidea, "Justu nazioen artean", eta tokiko historian ukan duen eragina kontatzen duen oroigarritzko plaka bat agertu dute. Ikastetxea ofizialki irekia izan da ohiko xingola mozketarekin.

Ondotik, Clémence Laur arkitektoak lekuen bisita gidatua eskaini die gomitei. Ikasgela modernoak, lantegi pedagogikoak, psikomotrizitate gelak ikusi ahal dituzte, baita gaur egun bertan dabilzan 120 ikasleei ingurumen pizgarri eta goxoa eskaintzeko pentsatuak izan diren bizi eremuak ere.

Ate irekiak ekainaren 21ean, larunbata: truka-keta, harrotasun eta partekatze unea

Ohiz kanpoko goiz hartan, arbonar ugarik - familiek, ikasle ohiek, aitatxi-amatxiek, auzoek eta begi luzeek - ikastetxe berriaren gibelaldeak ikusi ahal dituzte, Arbonako nortasunaren sinbolo azkarra eta herriko bizitzaren erdigunea bilakatzeko xedea duelarik.

Herriko kontseilariz lagundurik, andere auzapezak bisitariak errezibitu ditu eta gogo handiz eraman ditu ikastetxeko gune desberdinetan gaindi. Abantailazko une hau eraikinaren eraikitzean nagusitu diren arkitektura eta ekologia mailako hautuak aurkezteko aukera izan da: ekai iraunkorrak, argi naturala orotan, eta ikasketa akuilatzekeo pentsatuak izan diren eremuak.

Ikastetxearen sarreran, bisitariak Marguerite Schwab andereari eskainiriko oroigarritzko plaka ikusi ahal izan dute, ikastetxeak haren izena daramalarik haidorki. Haren ibilbide inspiragarria ikasi edo berriz ezagutu dute anitzek, baita omenaldi honen garrantzi sinbolikoa ulertu ere.

Marguerite Schwabek engaiamendua, zuzentasuna eta gupida bezalako baloreak irudikatzen ditu - Arbonako herriak bere ikastetxe publikoaren bitartez biharko belaunaldiei transmititu nahi dizkien balio handiko baloreak.





ESKOLAKO JANTEGI BERRIA ERAIKITZEN ARI: HAURREN ETA HAIEN ONGIZATEAREN ZERBITZUKO DEN PROIEKTUA

Eskolako jantegi berriaren obrak hasi dira apiril hondarrean eta finkaturiko egutegiaren arabera aitzina doaz. 2026ko urtarrilean irekiko du, herriko eskolako azpiegituren hobetzean urrats berri bat markatuz.

Obra horiek tokiko zenbait enpresa mobilizatzen dituzte, proiektuaren lurraldetasuna azpimarratuz. Eraikina paisaiarekin bat egitea artoski zaindua da, natura eta arkitektura ingurumenean gutiz sar dadin pentsatua izan delarik.

Datorren urte hastapenetik aitzina, ikasleek leku moderno, argitsua eta erabilgarria erabiltzen ahalko dute, beren eguneroko erosotasunerako eta ongizaterako pentsatua izan dena. Herriko Etxeak Arbonako haur guzietan kalitatezko bizi eta ikasketa ingurumena eskaintzeko duen nahiaren ildotik doa jantegi berria.



Ikasle-marraskia: fisi bat

ESKOLAKO BERRIAK

Aberedia eta lorendiari buruzko zientzia-proiektua Uhabian. Lehen mailako 4. eta 5. urtekoek Gazteen Eko-Legebiltzarra proiektuan parte hartu dute eta ikastetxearen inguruko ingurumena ikertu dute (Uhabia, honen bazterrak, inguruko oihana). *La Feuille* egunkariarendako artikulu bat idatzi dute, Arbonako izadiari buruzko ezuste ugariz beterik!

Marguerite Schwab ezagutzera. Ekain hondarrean, ikastetxe publikoko ikasleak Marguerite Schwab anderea ezagutzeko bidean ibili dira, haren historiaren lekuetatik iraganez, hala nola tuberkulosidunendako erietxea. Emaztearen bizia kontatu dien Christiane Urkia izan dute gidari.

Goresmenak gure kirolariei! Ekainaren 19an, osteguna, gure ikastetxeko lehen mailako 3., 4. eta 5. urtekoek JAB elkarteak antolatutako ikastetxeen arteko saskibaloitxapelketa irabazi dute.



FRIDA KAHLO HAURTZAINDEGIA

2025ean, **22 haur** errezibituak izan dira egitura ttipi honetan, tokiko familien konfiantza eta hezkuntza-taldeak duen egokitzeko gaitasuna irudikatzen dituen zenbakia.

dizkigu: "Izadiarekiko harremana gure proiektuan sartzten da arrunt. Egunerok, haurrak baratzean ibiltzen dira, eguraldia txarra bada ere. Jantzi egokituak erabiltzen ditugu ateraldiak errazteko eguraldia hezea delarik.

Azkenik, berritasun batek gure egunerokotasuna aberasten du: hilabetean behin, ogia egiten dugu haurrekin. Jarduera honek haien zentzumenak akuilatzen ditu, motrizitate fina garatzen eta beregaintasuna sustatzen... lagun arteko une goxoa partekatuz!"

Laguntzeko bidea begi onez egiten da, haur guzietan adi egonez eta bakoitzaren eritmoaren errespetuan.

Lehen haurtzaroaren arloko heziketa hartu duten profesional guzietan ingurumen **segurua eta pizgarria** sortzen dute, haurren gogo piztea, beregaintasuna eta lotura afektiboa sustatuz.

Familien beharrei egokituriko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera irekia, 7:45etik 18:15era, Frida Kahlo haurtzaindegiak guraso anitzen beharrei erantzuten dien **ordutegi zabala** proposatzen du, horiek mozturarik gabe, telelanean edo jardunaldi murriztuan ari direlarik lanean. **Balio handiko malgutasun** horrek familiei laneko eta familiako bitzita elkartzeko bide goxoagoa eskaintzen die.

Bihotz oneko harrera, bakoitzari egokia eta pizgarria:

Aldi berean 12 haur errezibi ditzakeen egiturak **bakoitzari egokituriko pedagogia eztea** garatzen du, haurren garapenaren urrats bakoitzari egokitua, 10 astetatik 4 urtetara. Taldeak zenbait ekintza adibide aipatu



Arbonako Kirol Zelaia: ekipamendu modernoa, inklusiboa, denen zerbitzuko

Biztanleek, elkarteek eta tokiko zango baloi taldeak lehiatzen duten Kirol Zelaiaren proiektuak urrats erabakigarri bat markatzen du Arbonako garapenean. **Egiatzko bizi, jarduera eta topaketa gune** gisa pentsaturik, erronka bat baino gehiagori erantzuten die: ekipamenduen gaurkotzea, elkarte egituraren sustatzea, denendako kirola akuilatzea, eta mugikortasun eztien eta ingurumenaren aldeko engaiamendua.

Lurralderako eta lurraldearekin pentsaturiko proiektua

2010etik goiti, Herriko Etxeak gogoeta sakona eraman du, egitasmoa zehazteko bi ikerketek eta lurralde proiektuak hazirik. Lau lehentasun nabarmendu dira: **zerbitzuak, bizi ingurumena, mugikortasunak eta bizilekua**. Kirol Zelaia ikuspegi estrategiko honen ildotik doa aurrunt.

1987tik goiti, gaurko zango baloi zelaiak Arbona Football Club (AFC) taldeko entrenamen-duk eta partidak errezibitzen ditu. Haatik, gaur egun, bere mugetara iritsi da: ez da arauen araberakoa, ekipamenduak zaharkituak dira, gaur den gunean ezin da gehiago zabaldu.

Erronka horie erantzuteko, Herriko Etxeak ekipamenduak ondoko gunera lekuz aldatzea erabaki du, APAJH elkarteak emanik, burgu barnea eta Bidarteko herriaren artean ezin hobeki kokaturik. Bide batez, Kirol Zelaia proiektuaren barnean sarraraziko du.

Kirol jardueren aniztasuna eta denendako helgarritasuna gune bakar batean garatuz, Kirol Zelaiak belaunaldien arteko kirol jarduera inklusiboak sustatzeko helburua du, baita **Arbonan topaketa eta bizi gune berri bat** gauzatzeko xedea ere.

TALDEKO GOBERNANTZA

2024ko ekainaren 3tik goiti, gidaritza batzorde batek proiektua laguntzen du urrats bakoi-tzean. Hautetsiak, elkarteak eta partaideak biltzen ditu, ikusmolde hitzartua eta aldakorra segurtatzeko. Elkarrekin, proiektu hau marrazten dute: inklusiboa, aldakorra eta herriko bizitzaren bihotzean kokatua. **Geroari buruz itzulia den Kirol Zelai bizia, helgarria** sortzen ari dira, **kirol jarduera guzieren zerbitzuko**.





Publiko guziei irekia den ekipamendua

Biharko Kirol Zelaia zango baloi zelai bat bezala pentsatua da, baina, oroz gainetik, **kirolean aritzeko leku ireki eta partekatu** bat bezala. Hona-koek dute proiektua osatzen:

- Arauen araberako **zango baloi zelai sintetikoa**, aldagelekin, harmailekin eta ospaki-zun gela batekin
- Saskibaloirako, eskubaloirako eta abarrendako **kirol anitzeko zelaia** (city stade motakoa)
- Bi **padle** zelai
- **Atsedun guneak** (mahaiak, aulkiak)
- Publiko desberdinei **egokituriko aparkalekua**
- Egungo aparkalekutik kirol-ekipamenduetara sartzeko oso ibilbide motza, debekatuta egongo baita ibilgailuak sartzea
- Beste ekipamendu batzuk ikertzen ari dira

Toki horrek mota anitzeko erabiltzaileei baliagarri izanen zaie: eskolako ikasleak, AFC elkartekideak, APAJH elkarteko egoiliarak, gazteak, familiak, adinekoak, Estiako ikasleak... Kirolean libreki edo norbaiten ardurapean aritzeko eta ekitaldiak antolatzeko bidea eskainiko du, baita hezkuntza-erabilera egokituak ere:

- **Kirol berriak garatzea**
- **Kirol edo besta elkarte-ekitaldiak antolatzea**
- **Kirolean libreki eta nor bere baitarik aritzea**, elkartearen ordutegitik kanpo
- Ikastetxeekin eta APAJH elkartearekin lankidetzak hezkuntza-kirol inklusibo eta egokitueterako.

Kirol Zelaiaren bitartez, Arbonako Herriko Etxeak geroari buruz itzulia den antolaketa iraunkor eta solidario baten alde engaiatzen dela berresten du. Bide eztienez bidez burgu barneari lotua den bizi gune berri horrek gizarte lotura azkartzean, kirol arloko borondate oneko lana balioan ezartzean eta biharko belaunaldien bakarkako eta taldekako loratzerako egokitua den eremu bat eskaintzean parte hartuko du.



AFC ELKARTEARENDAKO ETA TOKIKO GAZTERIARENDAKO BALIABIDEA

AFC elkarteak ereduzko ibilera du, 25 boluntario eta 269 kide biltzen dituelarik. Proiektu horrek **elkartearen erakargarritasuna azkartzeko** xedea ere badu **gazte gehiago bilduz** eta AFC elkarteari **gaitasunak garatzeko** bidea eskainiz, hala jokalarien nola arduradunen aldetik.

Ikastetxeekin eta APAJH elkartearekin lankidetzak irekitzea ere aurreikusia da.



2025EKO ERROLDAREN EMAITZAK: FARMAZIAREN LEKUZ ALDATZEA BAIMENDUA DA

2025eko urtarrileko biztanleen kontaktak agerian eman du gure herriak 2500 biztanleen muga gainditu duela. Horren arabera, Osasunaren Eskualdeko Agentziak behar zuen baldintza bete izan ki, farmazia lekuz aldatzen ahalko da; aspalditik igurikatzen genuen urratsa. 2008. urteaz geroztik dugun +%1,3ko emendaketa demografiko hori, hirigintza menperatu baten emaitza da, gure Tokiko Hirigintza Planak erakustera ematen zuena baino arrunt apalagoa.



HIRIGINTZAKO DOKUMENTUAK ULERTZEKO: LUKE, ETHP ETA THP

Hona hemen LUKE, ETHP eta THP terminoen azalpen bat, hirigintza-dokumentu horien arteko berdintasuna hobeki ulertzen lagunduko zaituena. Bakoitza Euskal Hirigune Elkargoak darama, eta lurraldearen antolamendua planifikatzeko eta kudeatzeko balio du, eskala geografiko eta xehetasun-maila desberdinen arabera.



Dokumentu mota	LuKE - Lurralde Koherentziarako Eskema https://www.scot-pbs.fr	hTHP - Herriarteko Tokiko Hirigintza-Plana https://www.communaute-paysbasque.fr/logement-et-urbanisme/les-procedures-durbanisme	THP - Tokiko Hirigintza-Plana
Eskala	Herriartekoa edo herriz gaindikoa (herri edo herriarte bat baino gehiago).	Herriartekoa (herri elkargo batek edo hirigune elkargo batek apailaturik).	Herrikoa (herri bakoitzak ukan dezake bere THPa).
Helburua	Antolaketa estrategia orokor bat zehaztea lurralde zabal baten mailan (maiz, hamar bat herri).	Hirigintza planifikatzea herriartearen mailan.	Herriko hiri-garapena planifikatzea.
Prozeduraren heina	Inkesta publikoaren bururapena 2025eko uztailean https://www.scot-pbs.fr/participez-a-lenquete-publique-du-scot-pays-basque-seignanx/	Egiten ari: ekarpenak egiteko aukera. www.registre-dematerialise.fr/5462/	Bururatua. 1. aldaketa, 2025eko martxoaren 29an onartua
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Eremua antolatzea (bizitegia, garraioa, garapen ekonomikoa...) - Baliabide naturalak eta bioaniztasuna zaintzea - Hiri zabaltzearen aurka borrokatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hiriguneak, hiritzeko guneak, laborantza-guneak eta naturaguneak zehaztea - Lursail bakoitzeko, lurren erabilera arautzea - Eraikitzeo arauak finkatzea (goratasuna, zortasun-eremua, etab.) 	hTHP baten egitura bera, baina herri bakar baten mailan.
Ezaugarriak	Partikularrei kontrajargarria ez den baina tokiko hirigintza dokumentuei (THP edo hTHP) kontrajargarria den planifikazio-dokumentua.	Abantaila: Herriz herrikoa baino, lurralde koherente baten mailako ikuspegi partekatua, Kontrajargarritasuna: Bai, eraikitzeo baimeinei, antolatzeko baimenei, etab.	hTHPek THPak ordezkatzen dituzte gero eta gehiago, baliabideak bateratzeko eta lurralde-koherentzia bat segurtatzeko.

ERREPIDE BAZTERREKO BERDEGUNEAK ARTATZEARI BURUZKO ARAUDIA: ALDATZEN DENA

Pirinio Atlantikoetako Departamenduak errepide bazterreko berdeguneen artatzeari buruzko araudi bat plantan ezarri du (bide bazterrak, arroilak, ezpondak, heskaiak), departamenduko errepideen luzeran. Aldaketa honen helburua bide segurtasuna eta bioaniztasunaren zaintza bateratzea da.

Zehazki aldatzen dena:

- **Esku hartzeko maiztasuna:** gaurdanik, belarra eta sasiak mozteko ekintza **gutiago** izanen dira. Helburua da tokiko lorea garatzen uztea garai garrantzitsuetan (loraldiak, habiagintzako garaiak).
- **Mozteko goratasuna:** lehen, errepide bazterrek **motz-motz** moztuak zirelarik (**5-8 cm**), araudi berriak **mozketa goragoak** egitera behartzen gaitu (**12-15 cm bana beste**) marmutxa eta animalia tipien habitat naturalak begiratzeko xedez.



• **Artatzeko moduak:** artatzea **arrazoizkoagoa eta bereizia** izanen da, esku hartze zehatzekin erronkaguneen arabera (bidegurutzeetatik hurbil, bide seinaleak, bihurguneak...).

Ondorioz, biztanleak bihotz-zabaltasunez jokatzera gomiatuak dira usaian baino landareztatuagoak diren errepide bazterren aitzinean. Haatik, belarra mozteko ekintza zehatzak egiten segituko dugu segurtasuna bermatzeko (ikuspena, bide seinaleak, etab.).

Urraspide hori eremu publikoak hobeki kudeatzeko xedearen ildotik doa.

GEUZA

Apairuak etxera ekartzeko zerbitzua

Adinekoei, ahalmen urrikoei edo eri direnei zuzendurik, Arbonar guziek balia dezakete apairuak etxera ekartzeko zerbitzua, urte osoan zehar edo noiztenka, beharren arabera (eritasun geldialdia, aldi bateko mugitzeko zailtasuna...).

APAIRUAK EKARTZEKO ZERBITZUA: Apairuak egunero har daitezke, edo soilik egun batzuetan. Apairu kopuruaren edo iraupenaren arabera betebeharririk ez da.

APAIRUEN PREZIOA: Apairuaren prezioa hartzailearen irabazien arabera alda daiteke, banaketa eta edukiontzia ere barne hartzen dituelarik.

ZERBITZUA BALIATZEKO: Arbonako Herriko Etxearekin harremanetan jarri **05 41 91 94 66** zenbakira edo helbide honetara: **mairie@arbonne.fr**

Departamenduko Beregaintasunaren Etxea abian jartzea

Istripua, eritasuna, ahalmen urritasuna, zahartzarora beregaintasuna galtzeko hainbat egoera izan daitezke, gutako bakoitzak edo gure hurbilekoek paira ditzakegunak.

Zuen urraspideetan hobeki informatzeko eta laguntzeko xedez, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluak eta Ahalmen Urrikoen Departamenduko Etxeak Departamenduko Beregaintasunaren Etxea abian jartzen dute (MDA64). Bakoitzaren beregaintasuna atxikitzeko diru-laguntza, zerbitzu eta laguntza guztiak ezagutu www.mda64.fr webgunean edo 05 59 04 64 64 zenbakira deituz, edota 18 MDA harrera guneetarikoa batean.



ARBONAKO BESTA BATZORDEA: HERRIA ALAITZEKO MOBILIZATZEN DEN GAZTERIA

Badu zenbait urte Arbonako besta batzordeak herriaren bihotza dardaratzen duela lagun arteko eta besta giroko ekitaldien erritmoan. Boluntario gazte ernez osaturik, funtsezko betekizuna du herriko besten eta belaunaldi guziak biltzen dituzten ekitaldien antolaketa. Talde motibatu honen buruan, lehendakari berri bat hautatua izan berri da, Iñaki Daguerre. Bere proiektuei, gogoei eta batzordearen etorkizunari buruzko galdera zenbait egiteko aukera izan dugu.

Zer dira zure lehentasunak Arbonako besta batzordeburu berri gisa?

Dinamika bera atxikitzea da, harridura sortuz, urte batetik bestera aldatzen diren bestekin, herria beti biziaz-raziz eta ahal bezainbat arbonar mobilizatuz.

Nola batzordeak mobilizatzen ditu gazteak eta biztanleak herriko bestak apailatzeko? (Zenbat kide eta boluntario)

Batzordea herriko bestak hasi baino 8 hilabete lehenago hasten da lanean, bilkuren denboran. Egitaraua gogoetatzen dugu, zerbitzu emaileekin harremanetan jartzen gara eta antolaketa orokorra prestatzen hasten gara.

Halaber, zenbait ekitaldi antolatzen ditugu urtean zehar, hala nola batzordekide ohien bazkaria. Hau joan den maiatzaren 24an iraganen zen Bil Tokin, lagun arteko egun baten denboran, bazkari alaitu baten inguruan. Ehun bat pertsona biltzeko atsegina izan dugu, gaztaroen besta batzordekide izan zirenak.

Azkenik, urtero, ekainean, gurekin biltzeko prest diren gazteak errezibitzen ditugu. Uztail hastapenean hasten den eta bestak hein batean diruztatzeko bidea eskaintzen duen etxex etxeko itzulia eraginkorki apailatzeko bidea ematen digu.

Artikulu hau baliatzen dugu gazte gehiago gurekin biltzera gomitatzeko. Ez duda gurekin harremanetan jartzea sare sozialen bidez, edo zuzenean Herriko Etxera etorritik. Zuekin kontatzeaz poztuko gara!



Zer izanen dira hurrengo bestetako une nagusiak?

Hurrengo bestetarako, egitarau aberatsa apailatu dugu, sei eguneko, agorrilaren 6tik 11ra, gazteendako eta ez hain gazteendako ekitaldi ugariarekin. Urtero bezala, Arbonako elkartearen eta merkatarien parte hartzea akuilatu nahi dugu, ekitaldia goxoagoa eta solidarioagoa izan dadin.

Larunbat gauerako, GATIBU taldea errezibitzeko zorte handia izanen dugu, Euskal Herrian biziki famatua eta aurten bere agur-bira egiten ari den taldea. Itsasuko gazteen MASKAK talde berria ere errezibituko dugu, baita SÛNE taldea ere, kantari nagusia HUNTZA taldekide ohia delarik.

Bukatzeo, igandean, Janus Lester eta Andoni Ollokiegi etorriko zaizkigu elkartearen gaualdia alaitzera. Zenbait ekitaldi izanen dira egun hartan.

Laster ukanen dituzue xehetasunak, egitarauak bidean dira!!

Zenbait ustekabe isiltzen ditugu...

GORA ARBONAKO BESTAK



AIOSKI: UNE PARTEKATUAK ARBONAKO ADINEKOENTZAT

Aioski elkarteak Arbonako adinekoak elkarretaratzen ditu lagun arteko une aberasgarrien inguruan. Gaurko egunean, 45 kide dira. Urtero, bi une nagusik markatzen dute elkartearen bizitza: kultura-ateraldi bat tokiko edo eskualdeko ondarea eza-gutzeko, eta ondotik, bazkari goxoa, elkartzeko aukera bikaina.

Aioskik adinekoen arteko gizarte lotura atxikitzeko, denen arteko oroitzapenak sortzeko eta balio handiko atsegin une soilak partekatzeko bidea eskaintzen du. Bakartasunetik urrun, kideek lagun arteko giroaz gozatzen dute, herriko adineko guzietan irekia.



Charles Borda, lehendakaria, tel. 05 59 41 93 12

Jeanine Daguere, tel. 05 59 41 93 37 - helbide@: jeanine.daguere@gmail.com

Solange Fraysse, tel. 06 14 19 41 72 - helbide@: solange.fraysse@orange.fr

HEGOAK MENDIAN ELKARTEA



Joelette motako aukiei esker (gurpil bakarreko anda aulki mota), ahalmen urriko pertsonak mendian laguntzen dituen Hegoak Mendian elkarteak 2025. urtea ongi hasi du!

Urtarriletik goiti, 33 pertsonak, haur ala heldu, usaian helgarri ez zaizkien lasterketetan parte hartzeko aukera izan dute. Hots 18 kirol-ekitaldi, lasterketa ofizial, ibilketa, lasterketa.

Beren joelette aulkiak Arbonako karrketan gaindi ibili dira Biarritzeko Nazioarteko Maratoia kari joan den maiatzean.

Ez duda haiekin harremanetan jartzea xehetasun gehiagorako: hegoakmendian@outlook.fr

ARBONNARAK



Aurten ere, emaitza onak taldearentzat. **Hiru talde finalean Frantziako txapelketetan. Bi xitoen sailean eta bat 16 urtez pekoen sailean.** Udako txapelketetan ikusiko dituzue!

Eneka Chapelet Housset eta Mathilde Exposito 16 urtez pekoen Frantziako txapelketako finalistak.

DENAK FLEITEAN BORONDATEZKO SOINKETAREKIN ARBONAN

Klaseak irail hastapenean berriz hasiko dira proposamen ugariarekin: Pilates, Yoga, soinketa indargarria eta ezta, cross training etab. Talde dinamikoak pozez errezibituko zaituzte "Elkarteen Etxean". Zatozte lasai, probatzeko bi saio eskainiak izanen zaizkizue.



Kirola bizia da! Harremanetarako/Argibideetarako: Gym.arbonne.ahetze@gmail.com fr eta 0672385103


Euskal pilota:

- Ekainaren 30etik agorrilaren 3ra, nesken frontball txapelketa, eta mutikoena ekain hastapenetik agorril hastapenera. Bil Toki ezker paretan.
- Ekainaren 22tik agorrilaren 3ra, Ama eskolako txapelketa. Ikastetxe zaharraren pilota plazan, 18:00etatik 21:00etara.
- Uda osoan: trinketeko amaturren txapelketa 4 sailekin, sartzea urrik, egunero, 18:00etatik goiti. Pilotariak Arbonatik eta auzo-herrietatik etortzen dira. Lekua: Bil Toki trinketa.
- Agorril erditik irail hondarrera, Joko Berri txapelketa asteazken eta larunbat arratsero Bil Toki trinketean.

Pintxo gaua:

- Uztailaren 18an, ostirala, 19:00-21:00, pintxo gaua eta Krys Yangoren kontzertua, musika folk akustikoa (gitarra, harmonika). Bil Toki trinketeko ostatuan.

Arte erakusketa



- Agorrilaren 14tik 31ra Corinne Berset
 - Irailaren 11tik 28ra Christina Manolongas
- Andere-Seroraenea, Harizmendi plaza, 6.
Ordutegia: ostegunetik larunbatera, 15:00-19:00.
Igandetan 10:00-17:00.
Harremanetarako: topaketak@mail.fr
Prezioak: Sartzea urrik



HESKAIK ARTATZEA



Eremu publikoaren mugetan diren heskaiak artatzeko ardura jabe pribatuei dagokie, kode zibileko 671. artikulua, errepide publikoko kodearen R116-2. artikulua eta baserrialdeko kodearen D161-14. artikulua arabera, gainditu behar ez diren luzetasunak eta goratasunak zehazturik.

Segurtasun arrazoiengatik eta errepideetara heltzeko, arbonar guziak araudizko neurri horiek betetzera akuilatzen ditugula ulertuko duzue. Arauak bete ezean, eta ohartarazi eta gutun bat bidali ondotik, Herriko Etxeak enpresa pribatu bati esku hartzeko eskatu beharko lioke, faktura jabeari zuzenduz.

ERRESPETATZEKO ZENBAIT ARAU ELKARREKIN HOBEBI BIZITZEKO

Xitxuketan ari naiz nire auzoak errespetatuz. Partikularrek xitxuketan aritu edo baratzean esku hartu nahi badute tresna burrunbatsuen bidez, honako ordutegia errespetatu behar dute:

Astelehenetik ostiralera 08:30-12:00/ 14:30-19:30

Larunbatetan 9:00-12:00 / 15:00-19:00 Igandetan 10:00 - 12:00

Harrabotsa etxean gordetzen dut. Jarrera burrunbatsu oro, hala nola bolumen handiegi eta trabagarria, zigortua izan daiteke. Zalaparta debekatua da, egunaz ala gauaz.

Zakurra loturik atxikitzen dut. Etxeako animaliak noraezean ibiltzen uztea debekatua da, lasaitasun publikoa tratatuko dutelako menturan.

OPOSIZIOAREN IRITZI ZUTABEA

Argitaratu gabe utzia izan den testua, gezurrezko, osatu gabeko edo ordena publikoaren kontra ari diren pasarte batzuren gatik. Erantzunik gabe gelditu den zuzenketa eskaera bat egina izan da.